

# GAILUETAN BIRUSAK SAIHESTEKO JARRAIBIDEAK

## ANTIBIRUSA INSTALATU, BETI

Gailu digital guztietan antibirus bat izatea gomendatzen da, gailuak aukera eskeintzen badu. Ordainpekoa edo doakoa izan daiteke. Doako antibirus adibide bat Avast da.



## APP-AK DENDA OFIZIALETATIK JEITSI

Smartphone eta tabletetan app-ak denda ofizialetatik soilik deskargatzea gomendatzen da (App Store, Google Play). Ordenagailuetan, aplikazio horien garatzaileen webguneetatik ere jeitsi ditzakegu.



## SISTEMA ERAGILE ETA APP-EN EGUNERAKETA

App-ak eta sistema eragileak eguneratzea gomendatzen da, ahal den gailu guztietan, bai mugikorretan, bai ordenagailuetan.



## KONTUZ WEB ETA EMAIL-EKIN

Kontuz web susmagarriekin (erosketa oso merkeak, porno orriak, doako filmak eta app-en orriak...) jeisten ditugun gauzekin eta erantsitako fitxategiak dituzten email susmagarriekin; jaso bezain laster, horiek ireki gabe ezabatu.

